

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI
NAGUSIAREN 44/2023 TXOSTENA**

Gaia: Kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzako ordenantza fiskal orokorraren onarpena

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0147 (2023)

Sail tramitatzailea: Diruzaintza

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

1. Aurrekariak

Lehena.- 2023ko irailaren 19an Diruzainak Kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzako ordenantza fiskal orokorraren onarpenerako txostena egin du.

Bigarrena.- 2023ko urriaren 9an Diruzainak Kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzako ordenantza fiskal orokorraren onarpenerako erabaki proposamena egin du.

Hirugarrena.- Espedientean, aurrekoez gain hurrengoak jaso dira:

- Ordenantzaren testu proposamena
- Kontuhartzailearen 2023ko urriaren 9ko aldeko txostena

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru-Araua.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru-Araua.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten duen 125/2019 Foru Dekretua.
- Ordezko moduan, administrazio-zuzenbideko xedapen orokorrak eta zuzenbide arrunteko manuak, bereziki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio

1



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB2BB00U8E1D716B0R9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
10/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 10/10/2023
13:16:00

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0147
Data: 29/09/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu Araubide Juridikoaren araudia onartzen duena.

2.2. Hausnarketa juridikoa

Oinarrizko kontzeptuak

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeak 4.1. a artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizaziorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeak ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten.

Gainera, Bermeoko Udalaren eskumena da ordenantza hau onartzea Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru-Arauren 7.2 artikuluen arabera.

Hori horrela, zuzena da Bermeoko Udalak Kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzako ordenantza fiskal orokorraren araudia landu, izapidetu eta onartzea.

Araudia onartzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Ordenantza zirriborroaren edukiari buruz

Aurkeztutako ordenantza zirriborroaren edukia zuzena da.



Jarraitu beharreko prozedurari buruz

Ordenantza fiskalak onartzeko prozedura 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan jaso da:

*“1. Los acuerdos provisionales adoptados por las corporaciones locales para el establecimiento, supresión y ordenación de sus tributos y para la fijación de los elementos necesarios en orden a la determinación de las respectivas cuotas tributarias, así como las **aprobaciones** y modificaciones de las correspondientes ordenanzas fiscales, se expondrán en el tablón de anuncios de la entidad durante treinta días, dentro de los cuales los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.*

2. Las Entidades Locales publicarán, en todo caso, los anuncios de exposición en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Asimismo aquellas entidades con población de derecho superior a diez mil habitantes deberán publicarlos en un diario de los de mayor difusión de este Territorio Histórico.

3. Finalizado el período de exposición pública, las corporaciones locales adoptarán los acuerdos definitivos que procedan, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción definitiva de la ordenanza, su derogación o las modificaciones a que se refiera el acuerdo provisional.

En el caso de que no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.”

Arau bereko 17. artikuluaaren arabera hurrengoak aurkeztu ahal izango dituzte erreklamazioak:

“a) Los que tuvieran un interés directo o resulten afectados por tales acuerdos.

b) Los colegios oficiales, cámaras oficiales, asociaciones y demás entidades legalmente constituidas para velar por los intereses profesionales, económicos o vecinales, cuando actúen en defensa de los que le son propios



4. En todo caso, los acuerdos definitivos a que se refiere el apartado anterior, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría, y el texto integro de las ordenanzas o de sus modificaciones, habrán de ser publicados en el «Boletín Oficial de Bizkaia», sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.”

Gainera, kontuan izan behar da ordenantza fiskalak onartzeko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 129 (erregulazio oneko printzipioak) eta 132 (Plangintza. ordezeko moduan) artikulua kontuan izan behar direla; ez, ostera, 133. Artikuluan zehaztutako kontsulta publikoa. Izan ere, Auzitegi Gorenak 2023ko urtarrilaren 31n, 108/2023 epaian, adierazi duen moduan ordenantza fiskalen onarpenerako ez da 39/2015 Legeak 133. artikuluan zehaztutako aurreiazko kontsulta egin behar.

Hori guztia kontuan izanda, espedienteak hurrengoak izango ditu:

a) Ordenantza udalaren urteko plangintzan aurreikusita egotea (39/2015 legearen 132art).

Espedientean ez da ageri plangintzan dagoenik.

Francisco Velasco Caballero eta Irene Araguas Galcera moduko adituek defendatzen dutela Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 epaiaren geroztik artikulua hori ez dela Toki erakundeentzat oinarritzakoa. Dena den, Bermeoko Udalaren autoorganizaziorako eskumenaren barruan praktika ona da berorri burutzea.

b) Teknikariak justifikatuko du Kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzako ordenantza fiskal orokorraren ordenantza onartzeko beharrezakoa eta erregulazio oneko printzipioak errespetatu direla.

Diruzainak justifikatu du 2023ko irailaren 29ko justifikatze txostenean.

c) Udal zerbitzuek Ordenantzen egitasmoaren artikuludun testua eta erabaki proposamena prestatuko dute.

Espedientean daude.

d) Aurreiazko fiskalizazio mugatuak kontrakoa esan ezean, kontuhartzaileak txostena egingo du, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen legearen

4



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB2BB00U8E1D7I6B0R9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
10/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 10/10/2023
13:16:00

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0147
Data: 29/09/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



testu bateginaren 214. artikulua eta abenduaren 2ko 10/2003 Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 67. artikulua araberaz.

Espedientean ageri da aldeko txostena.

e) Idazkariak txosten juridikoa egingo du.

f) Proposamena bideratuta Informazio Batzordearen irizpena beharko da eta, ondoren, Osoko Bilkurak hasierako onarpena emango dio, gehiengo soilaz.

g) Behin-behineko erabakien jendaurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxieneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean.

Epe horren barruan, interesdunek espedientea aztertu dezakete, bai eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ere.

h) Aipatutako epearen barruan aurkeztu diren erreklamazio nahiz iradokizun guztiak ebatzi beharko dira, eta Osoko Bilkurak behin betiko onartuko ditu ordenantza fiskalak (aurretiaz Informazio batzordearen irizpena beharko da).

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, ulertuko da Ordenantza automatikoki behin betiko onartuko dela. Ondorio horietarako, Idazkariak ziurtagiria egingo du hasierako onarpena behin betiko bihurtu dela egiaztatzeko.

i) Behin betiko erabakia edo hala bihurtu den behin-behineko erabakia eta aldatutako ordenantzen testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Ez da indarrean sartuko argitaratze hori gauzatu arte.

Eskumenari buruz¹

Bermeoko Udaleko osoko bilkurari dagokio ordenantza fiskalak onartu eta aldatzeko eskumena, gehiengo soilaz.

Erabaki proposamenaren edukiari buruz

¹ Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundearen Oinarriak arautzen duten Legearen 22.2.d artikulua araberaz.



2023ko urriaren 9an udal diruzainak aurkeztutako erabaki proposamenean bigarren puntua zuzendu behar dira:

- 9/2005 Foru Arauaren 16. artikulua arabera behin-behineko erabakiaren jendurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxieneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean.

3. Ondorioa

Hori guztia kontuan hartuz, aldeko txostena oharrarekin egiten zaio Kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzako ordenantza fiskal orokorraren onartzeko proposamenari.

Oharra: 9/2005 Foru Arauaren 16. artikulua arabera erabaki proposamenean bigarren puntua zuzendu behar da, hurrengoa jasoz: behin-behineko erabakiaren jendurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxieneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2023ko urriaren 10ean

Jurdana Uriarte Lejarraga
Idazkari nagusia

6



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB2BB00U8E1D7I6B0R9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
10/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 10/10/2023
13:16:00

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0147
Data: 29/09/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000DB2BB00U8E1D7I6B0R9

